

Errotuluak eta iragarkiak jartzea arautuko dauan

Ordenantza

1. Artikulua

Alkatetzaren baimen barik ezin izango da jarri ez errotulurik ez iragarkirik. Gainera, herri-bidea hartzen dabenean, jagokezan eskubideak ordaindu beharko dabez eta ondorengo baldintzak bete.

2. Artikulua

Eraikinetako fatxadetatik paralelo doazen errotuluak honeei erantsita joango dira. 25 zm.ko gehieneko hegaldura onartuko da, eraikuntza jasotzen dan losatik kontaktzen hasita.

3. Artikulua

Aurreko artikuluan esandako hegalduraren barruan sartuta egongo dira moldurak, mentsulak eta gainerako apaingarri guztiak.

4. Artikulua

Errotuluaren guztirako altuerak ez dauz gaitutuko 60 zentimetroak, ez errotulazio-hizkienak 40 zentimetroak.

5. Artikulua

Honelako errotuluen beheko aldea, espaloitik, 2.50 metrotara egongo da gitxienez.

6. Artikulua

Balkoi eta helgadun begiratokiei erantsitako errotuluak jartzea onartuko da, beti ere, egitura edo armazoiak ezarritako planotik kontaktzen hasita, haren hegaldurak 10 zentimetroak gaitutzen ez dauzan bitartean.

7. Artikulua

Balkoi eta begiratokietan jarritako errotuluen neurriak ezin izango dira eurok baino handiagoak izan.

8. Artikulua

Balkoi eta begiratokietan jarritakoen altuerak, 4. artikuluan ezarritakorik ez dabe gaitutuko , eta inola ere, euren karelen altuerarik.

9. Artikulua

Debekatuta geratuko da fatxadari erantsitako errotuluak jartzea leiho aurreetan edota euren mугen gaineko eraikuntza aldaketa bat eragingo balebe.

10. Artikulua

Aurrez aurreko euren aurpegietan neurtuta, fatxadetatik perpendikularrean jarritako errotuluek ezin izango dabe euki hamar zentimetroko lodieratik gora.

11. Artikulua

Ez euren beheko aldea, ez eta euskarri modura erabiltzen dan horma-besoa ere , ezin izango da inola ere, espaloitik 2,50 metrotik beherako bitartean egon ez eta 4,50tik gorako distantzian.

12. Artikulua

Jasotze-losa eta honen altueretatik -apaingarriak barruan dirala-hasita, errotulu mota honetako hegaldurak, espaloi gainean euren beheko altuerari lotuta egongo dira, ondorengo laukian ezarritakoaren arabera:

Espaloi gaineko Hegaldurak Altuera

beheko aldearen igoera

2,50 m. 0,50 m. 0,30 m.

3,00 m. 0,75 m. 0,35 m.

3,50 m. 1,00 m. 0,40 m.

4,00 m. 1,25 m. 0,45 m.

4,50 m. 1,50 m. 0,50 m.

13. Artikulua

Errotuluak eta iragarkiak jartzeko udal lizentzia eskariagaz batera, oin eta fatxadako planoak aurkeztuko dira, 1:50 eskalan, errotulua non kokatuko dan azaldurik. Errotuluaren plano zehatza ere aurkeztu beharko



da, 1:10 eskalan, hizki mota, margoa, materialea, forma, irakurri daitekena eta eraikuntza zertzeladak agerturik bertan.

14. Artikulua

Idatzitakoan edozelako aldakuntzarik jasan dauan errotulu edo plaka instalakuntza barria legez hartuko da eskubideen ordainketa eraginetarako.

15. Artikulua

Alde Zaharreko errotulu edo iragarkiak, haren Birgaitetarako Plan Berezi barruko araudiaren bidez eraenduko da.

Bermeon, 1998ko ekainaren 11an—

1998-05-28 argitaratuta Zk.100

